arrigorriaga
UDAL EUSKALTEGIA

IFZ: P4800044B

# ARRIGORRIAGAKO UDAL EUSKALTEGIKO ARTEZKARITZA BATZORDEKO AKTA

# ACTA DEL CONSEJO RECTOR DEL ORGANISMO AUTÓNOMO ARRIGORRIAGAKO UDAL EUSKALTEGIA

| **Ohiko bilera** | **Reunión ordinaria** |
|---|---|
| **Eguna** / Día: | **2024/04/17** |
| **Deialdia** / Convocatoria: | **Lehena** / Primera |
| **Hasiera ordua** / Hora inicio: | **12:00** |
| **Amaiera ordua** / Hora finalización: | **12:15** |

**Bertaratutakoak** / Asistentes:

| | | |
|---|---|---|
| **Presidente delegatua** / Presidente delegado: | Gorka Etxebarria Elordui | EH-BILDU |
| **Batzordekideak** / Vocales: | Gotzon Ajuria Fisure | EAJ-PNV |
| | Iratxe Rubio Gil | A.GARA |
| | Maite Barahona Díaz | Udal talde sozialista |
| | Josune Zamalloa San Miguel | Zuzendari akademikoa |
| **Bertaratu ez direnak** / Ausentes: | José Ignacio Fernández Grajera | NOA |
| | Nerea González Méndez | Ikasleen ordezkaria |
| | Ander Alonso Lopez | HABE |
| **Idazkari delegatua** / Secretaria delegada: | Begoña Ealo Agirre | |

## 1.- AURREKO BILERAREN AKTAREN ONARPENA, BIDEZKOA BADA (2024-01-17).

Artezkaritza Batzordeak aldeko 16 botorekin (EH-BILDUren 7, EAJ-PNVren 6, Udal talde sozialistaren 2 eta A.GARAren 1)

## 1.- APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL ACTA DE LA REUNIÓN ANTERIOR (17-01-2024).

El Consejo Rector por 16 votos a favor (7 de EH-BILDU, 6 de EAJ-PNV, 2 de Udal talde socialista y 1 de A.GARA) acuerda aprobar



Urgoiti pasealekua 55, 2.a • 48480 Arrigorriaga • Tel. 944002060 • www.arrigorriagakoeuskaltegia.eus

aurreko bileraren akta onartzea erabaki du.

el acta de reunión anterior.

**2.- PRESIDENTE DELEGATUAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.**

**2.- DAR CUENTA DE LAS RESOLUCIONES DEL PRESIDENTE DELEGADO.**

Artezkaritza Batzordea 2024ko 2. zenbakitik 12.era bitartean hartutako ebazpenen jakinaren gainean geratu da.

El Consejo Rector se da por enterado de las resoluciones dictadas por el presidente delegado desde la número 2 hasta la 12 del año 2024.

**3.-. 2023-2024 IKASTURTEAN, EUSKARA MAILAREN ATALASEAREN GAINEKO EBALUAZIOAREN BIDEZ, A1 ETA A2 HIZKUNTZA-GAITASUNAREN MAILAK EGIAZTATZEKO OINARRIEI BURUZKO PRESIDENTE DELEGATUAREN EBAZPENAREN BERRI EMATEA**

**3.- DAR CUENTA DE LA RESOLUCIÓN DEL PRESIDENTE DELEGADO REFERENTE A LAS BASES PARA LA CERTIFICACIÓN DE LOS NIVELES DE COMPETENCIA LINGÜÍSTICA A1, A2 MEDIANTE EVALUACIÓN ACREDITATIVA DEL GRADO DE DOMINIO EN EL USO DEL EUSKARA, CURSO 2023-2024.**

Artezkaritza Batzordea 2023-2024 ikasturean A1 eta A2 mailak egiaztatzeko oinarrien jakinaren gainean geratu da. Hona hemen aipatutako ebazpena:

El Consejo Rector se da por enterado de las bases para la certificación de los niveles A1 y A2 en el curso 2023-2024. A continuación se recoge la citada resolución:

**PRESIDENTE DELEGATUAREN EBAZPENA**

**RESOLUCIÓN DEL PRESIDENTE DELEGADO**

**GAIA: A1 ETA A2 HIZKUNTZA-GAITASUNAREN MAILAK EGIAZTATZEKO OINARRIAK, EUSKARA MAILAREN ATALASEAREN GAINEKO EBALUAZIOAREN BIDEZ, 2023-2024 IKASTURTEA.**

**ASUNTO: BASES PARA LA CERTIFICACIÓN DE LOS NIVELES DE COMPETENCIA LINGÜÍSTICA A1, A2 MEDIANTE EVALUACIÓN ACREDITATIVA DEL GRADO DE DOMINIO EN EL USO DEL EUSKARA, CURSO 2023-2024.**

Azaroaren 25eko 29/1983 Legeak, Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea sortu eta Euskaltegiak Arautzekoak, euskaltegien ezaugarriak, eginkizunak eta ahalmenak jasotzen dituen III. idazpuruaren 13. artikuluan xedatzen du euskaltegiek ahalmen akademiko osoa izango dutela.

La Ley 29/1983, de 25 de noviembre, de creación del Instituto de Alfabetización y Reeuskaldunización de Adultos y de Regulación de los Euskaltegis, en su título III, dedicado a las características, funciones y facultades de los euskaltegis, en el artículo 13 establece que los euskaltegis tendrán facultades académicas plenas.

Lege hori garatuz, 2003ko uztailaren 22ko 179/2003 Dekretuak arautzen du helduentzako euskararen irakaskuntza burutzen duten euskaltegien jarduera eta horien finantzaketa Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren aldetik. Dekretu horretan xedatzen da Kulturako sailburuaren Aginduz zehaztuko dela euskararen ezagutza egiaztatzeko sistema, HABEren Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Kurrikuluan (HEOC hemendik aurrera) eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuan ezarritakoari jarraituz.

En desarrollo de la mencionada Ley, el Decreto 179/2003, de 22 de julio de 2003, que regula la actividad de los euskaltegis y su financiación por la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi, dispone que por Orden de la Consejería de Cultura se determinará un sistema de acreditación de niveles acorde al Currículo Básico de Enseñanza de Euskera a Personas Adultas de HABE (en adelante HEOC), y en el Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas.

Izan ere, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2020ko irailaren 9ko Aginduak (EHAAko 191. zenbakia), ondoren egindako zuzenketekin batera, lehenik, 2022ko urriaren 20ko Agindua (EHAAko 204. zenbakia) eta, bigarrenik, 2024ko urtarrilaren 11ko Agindua (EHAAko 15, zenbakia) euskarazko komunikagaitasun-mailen ebaluazioa eta egiaztatzegintza arautzen ditu, eta euskara-ikasle helduentzako dirulaguntzen deialdietarako irizpideak finkatzen ditu.

En efecto, la Orden, de 9 de septiembre de 2020, del Consejero de Cultura y Política Lingüística (BOPV número 191) junto con sus correcciones, primera, mediante la Orden del 20 de octubre de 2022 (BOPV número 204), y, segunda, mediante la Orden del 11 de enero de 2024 (BOPV número 15) regula la evaluación y certificación de los niveles de competencia lingüística en euskera, y fija los criterios para las convocatorias de ayudas al alumnado de los cursos de euskera para adultos.

Hizkuntza gaitasunak egiaztatzeko prozesuari dagokionez, agindu horren 4. artikuluak euskaltegietako ikasleek euskararen erabilera zein mailataraino menderatzen duten ebaluatu eta egiaztatzea, eta ondorioz, ikasleon komunikagaitasunaren mailak zehaztea, HEOCean ezarritako helburu, gaitasun, eduki eta ebaluazio-irizpideei lotuz egingo dela ezartzen du. Hain zuzen ere, Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculuma (HEOC) ezartzen duen Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2015eko uztailaren 22ko Aginduan zehaztuta datozen moduan.

En relación a la certificación de los niveles de competencia lingüística, concretamente, el artículo 4 de esta orden recoge que la evaluación y acreditación del grado de dominio en el uso del euskera del alumnado de los euskaltegis, y la consiguiente concreción de su nivel de competencia comunicativa, se establece con referencia a los objetivos, las competencias, los contenidos y los criterios de evaluación de los niveles establecidos en la Orden de 22 de julio de 2015, de la Consejera de Educación, Política Lingüística y Cultura, que establece el Currículo Básico de Enseñanza de Euskera a personas adultas (HEOC).

Bestalde, HABEren zuzendari nagusiaren 2023ko abenduaren 21eko ebazpenak (7

Por otro lado, la resolución del 21 de diciembre de 2023, del Director General de



Urgoiti pasealekua 55, 2.a • 48480 Arrigorriaga • Tel. 944002060 • www.arrigorriagakoeuskaltegia.eus

zenbakidun 2024ko urtarrilaren 10eko EHAAn argitaratuta) ezartzen duenez, HEOCaren A1 eta A2 mailak dira 2023-2024 ikasturtean egiaztatu ahal izango direnak, euskaltegietako ikasleen euskara mailaren atalasearen gaineko ebaluazioaren bitartez.

HABE (BOPV número 7 del 10 de enero de 2024) dispone que son los niveles A1 y A2 del HEOC los que se podrán acreditar en el curso 2023-2024 mediante actividades de evaluación del grado de dominio en el uso del euskera para el alumnado de los euskaltegis.

Prozesu honi buruzko zuzendari akademikoaren txostena eta aurreko guztia kontuan hartuta, Presidente delegatu honek hauxe ERABAKI du gaur:

En virtud de todo lo anterior, y teniendo en cuenta el informe de la directora académica al respecto, esta Presidencia en el día de hoy RESUELVE:

**Lehenengoa**: Arrigorriagako Udal Euskaltegia erakunde autonomoan A1 eta A2 hizkuntza-gaitasunaren mailak egiaztatzeko oinarriak onartzea euskara mailaren atalasearen gaineko ebaluazioaren bidez. Hona hemen aipatutako oinarriak:

**Primero**: Aprobar las bases que regulan la certificación de los niveles de competencia lingüística A1 y A2 mediante la evaluación con valor acreditativo del grado de dominio en el uso del euskara realizada en el organismo autónomo Arrigorriagako Udal Euskaltegia, y que son las siguientes:

1. oinarria.- Xedea.

Oinarri hauen xedea da Arrigorriagako Udal Euskaltegiko ikasleek, 2023-2024 ikasturtean, euskara mailaren atalasearen gaineko ebaluazioaren bidez, Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumaren (HEOC) A1 eta A2 gaitasun mailak egiaztatzeko prozeduraren ezaugarriak eta xehetasunak zehaztea.

Base 1º.- Objeto.

Es objeto de estas bases establecer las especificaciones necesarias para que el alumnado del Euskaltegi Municipal de Arrigorriaga pueda acreditar, durante el curso 2023-2024, los niveles A1 y A2 del Currículo Básico de enseñanza de euskara a personas adultas (HEOC), mediante actividades de evaluación del grado de dominio en el uso del euskera.

2. oinarria.– Oinarrizko esparrua.

HEOCa eta Hizkuntzen ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluaziorako Europako Erreferentzia Marko Bateratua izango dira ikasleen hizkuntza gaitasuna egiaztatzeko oinarri eta markoa, hurrenez hurren.

Base 2º.- Marco básico.

El HEOC y el Marco Común Europeo de Referencia para las lenguas constituirán, respectivamente, el fundamento y el ámbito de referencia para la acreditación del nivel de competencia del examinando.

Ondorioz, HEOCean ezarritako gaitasun-mailei dagozkien ziurtagiriak lortzera bideratutako euskara mailaren atalasearen gaineko ebaluazio jarduerak HEOCean bertan jasotako ebaluazio-irizpideetara egokituko dira.

Consecuentemente, las actuaciones de evaluación del grado de dominio en el uso del euskera dirigidas a la obtención de los certificados correspondientes a los niveles de competencia previstos en el HEOC se ajustarán a los criterios de evaluación fijados



Urgoiti pasealekua 55, 2.a • 48480 Arrigorriaga • Tel. 944002060 • www.arrigorriagakoeuskaltegia.eus

en dicho Currículo.

3. oinarria.- Mailetako atalasearen gaineko egiaztatze-ebaluazioaren epeak.

2020ko irailaren 9ko Aginduaren 46 artikuluak xedatzen duenez, A1 eta A2 mailetako atalasearen gaineko egiaztatze-ebaluazioa lau alditan aplikatuko da urtean zehar.

Alabaina, 2023-2024 ikasturtean Arrigorriagako Udal Euskaltegian osatutako ikastaroen moduluak kontuan hartuta, euskara mailaren atalasearen gaineko azken ebaluazioa balio egiaztatzaileaz aplikatuko da agindu horretan jasotako 3. eta 4. garaietan bakarrik. Beraz, jarraian agertzen diren garaiak dira 2024. urtekoak:

- 3. garaia: 2023ko urriaren 1etik 2024ko ekainaren 30era bitarteko ikastaroak.
- 4. garaia: 2024ko uztailaren 1etik irailaren 30era bitarteko ikastaroak.

Base 3ª.- Periodos de evaluación con valor acreditativo del grado de dominio en el uso del euskera.

Según se recoge en el artículo 46 de la Orden, de 9 de septiembre de 2020, la evaluación de dominio de la lengua se aplicará con carácter acreditativo en cuatro periodos a los largo del año para los niveles A1 y A2.

Ahora bien, teniendo en cuenta los módulos de los cursos organizados en el euskaltegi municipal de Arrigorriaga para el curso 2023-2024, la evaluación final del grado de dominio del uso de la lengua se aplicará con carácter certificativo únicamente en los períodos 3º y 4º del curso, siendo en el ejercicio 2024 los siguientes:

- 3º periodo: Cursos impartidos entre el 1 de octubre de 2023 y el 30 de junio de 2024.
- 4º periodo: Cursos impartidos entre el 1 de julio y el 30 de septiembre de 2024.

4. oinarria.– Gaitasun-mailak egiaztatzeko baldintzak.

A1 eta A2 gaitasun-mailen ziurtagiriak lortzeko, ikasleak HABEren zuzendari nagusiaren 2023ko abenduaren 21eko ebazpenaren 1. eranskinaren 3. oinarriak zehazten dituen baldintzak bete beharko ditu.

Base 4ª.– Requisitos para acceder al proceso de acreditación.

La obtención de los certificados de los niveles de competencia A1 y A2 requerirá por parte del alumnado el cumplimiento de las condiciones recogidas en la base 3ª del anexo I de la Resolución del Director General de HABE de 21 de diciembre de 2023.

5. oinarria.– Ebaluazio-jardueren ezaugarriak.

5.1.- Euskaltegiko mailaren atalasearen gaineko ebaluazio-jardueren bidez balio egiaztatzaileaz egingo diren ebaluazio-

Base 5ª.– Características de las actividades de evaluación.

5.1.- Las actividades de evaluación con valor acreditativo realizadas en el contexto de la evaluación del grado del dominio en el



Urgoiti pasealekua 55, 2.a • 48480 Arrigorriaga • Tel. 944002060 • www.arrigorriagakoeuskaltegia.eus

jarduerek HEOCean xedatzen dena aintzat hartuz, komunikazio-eraginkortasuna izango dute ebaluazio-irizpide nagusi. Gainera, 2020ko irailaren 9ko Aginduaren 11 artikuluak xedatzen duenaren arabera garatuko dira, eta HABEren zuzendari nagusiaren 2023ko abenduaren 21eko Ebazpenaren III. eranskinean jasotako egitura, eduki eta irizpideen arabera prestatu eta aplikatuko dira.

uso del euskera observarán, en todo caso, lo dispuesto en el HEOC y tendrán como principal criterio de evaluación la eficacia comunicativa. Además, se desarrollarán conforme a lo establecido en el artículo 11 de la Orden de 9 de septiembre de 2020, y se elaborarán y aplicarán conforme a la estructura, contenidos y criterios recogidos en el Anexo III de la Resolución del Director General de HABE de 21 de diciembre de 2023.

5.2.- Euskararen gaitasun eta jakite-maila ebaluatzeko jarduera guztiak taldeko irakasleak berak ebaluatuko ditu. Eta mailaren atalasearen gaineko ebaluazio-jardueren bidez maila-amaierako ebaluazioren idazmen- eta mintzamen-jarduerak taldeko irakasleak eta euskaltegiko beste irakasle batek ebaluatu eta kalifikatuko dituzte. Horiek osatuko dute epaimahai kalifikatzailea, A1 eta A2 gaitasun maila bakoitzerako. Epaimahai horiek urtero izendatuko dira, Arrigorriagako Udal Euskaltegia erakunde autonomoko presidentziaren ebazpenaren bidez, zuzendaritza akademikoaren proposamenean oinarrituta.

5.2.- Todas las actividades de evaluación del grado de competencia y dominio del euskera las evaluará el o la profesora del grupo, y las actividades de evaluación final de expresión escrita y oral, las evaluarán y calificarán el o la profesora del grupo y otra profesora o profesor, quienes conformarán el tribunal calificador, que será uno para cada nivel de competencia A1 y A2. Estos tribunales serán nombrados, anualmente, mediante resolución de la presidencia del organismo autónomo Arrigorriagako Udal Euskaltegia, en base a la propuesta de la dirección académica.

Ondoren, euskaltegiko zuzendaritzak ontzat emango ditu kalifikazio horiek, baldintza guztiak behar bezala bete direla egiaztatu ondoren.

Posteriormente, la dirección del euskaltegi procederá a dar el visto bueno a dichas calificaciones, una vez comprobado que se han cumplimentado debidamente todos los requisitos.

5.3.- A1 eta A2 mailetako ziurtagiriak lortzeko, ezinbestekoa izango da kasuan kasuko epaimahaiak ebaluatu eta kalifikatutako maila proba gainditzea.

5.3.- Para obtener los certificados correspondientes a los niveles A1 y A2 será imprescindible la superación de la prueba de nivel de dominio evaluada y calificada por el tribunal correspondiente.

5.4.- Amaierako ebaluazio-jarduerak amaituta, tutoreak egindako ebaluazio-jarduerak ikasleei erakutsi, eta dagokion feedbacka aurrez aurre emango diote elkarri. Tutoreak horrela egingo du ikasle guztiekin banan-banan.

5.4.- Una vez finalizada la evaluación final, el o la tutora enseñará a su alumnado sus pruebas de evaluación, realizando el feedback correspondiente de forma presencial y recíprocamente con cada alumno y alumna.



Urgoiti pasealekua 55, 2.a • 48480 Arrigorriaga • Tel. 944002060 • www.arrigorriagakoeuskaltegia.eus

6. oinarria.– Emaitzen argitarapena.

Ikastaroa amaitu eta bost laneguneko epean ikasleak bere amaierako ebaluazio-txostena ikusi ahal izango du HABEren Q87 aplikazioan. Bertara sartzeko bere ikasle-sarbidea baliatuko da. 2024. urteko datak honako hauek izango dira:

- 2024-07-08: 2023ko urriaren 1etik 2024ko ekainaren 30era bitarteko ikastaroak.

- 2024-10-07: 2024ko uztailaren 1etik irailaren 30era bitarteko ikastaroak.

Base 6ª.– Publicación de los resultados.

Una vez finalizado el curso y en el plazo de cinco días hábiles el examinando tendrá a su disposición el informe final de evaluación en la aplicación Q87 de HABE, a la que tendrá acceso haciendo uso de sus claves de acceso. Las fechas para el año 2024 son las siguientes:

- 2024-07-08: Cursos impartidos entre el 1 de octubre de 2023 y el 30 de junio de 2024.

- 2024-10-07: Cursos impartidos entre el 1 de julio y el 30 de septiembre de 2024.

7. oinarria.– Erreklamazioak.

Ikaslea ados ez badago amaierako ebaluazio-txostenean jasotako informazioarekin, erreklamazioa aurkeztu ahal izango du Arrigorriagako Udal Euskaltegiaren aurrean, emaitzak argitaratu ondorengo 3 lan-eguneko epean. Horretarako, dagokion eskaera idatziz aurkeztuko du Arrigorriagako Udal Euskaltegiaren bulegoan, Arrigorriagako Urgoiti pasealekua 55, 2. solairuan dagoena, eta bertan erregistratuko da. Eskaeran, gutxienez, honelako datu hauek jasoko dira:

- Erreklamatzailearen izen-deiturak, NAren zenbakia eta jakinarazpenetarako helbidea.
- Erreklamazioaren arrazoia eta aurkeztu den egiaztapenaren maila. Desadostasun hutsa adieraztea ez da oinarri nahikoa izango lortutako kalifikazioaren berrikuspena eskatzeko. Beraz, kalifikazioa berrikusteko eskaerek arrazoibide tekniko bat izan beharko dute.
- Lekua, data eta erreklamatzailearen sinadura.

Base 7ª.– Reclamaciones.

En el caso de que el alumno o alumna no esté de acuerdo con la información recabada en el informe final de evaluación, podrá presentar reclamación ante Arrigorriagako Udal Euskaltegia en el plazo de tres días hábiles a partir de la publicación de los resultados. Para ello, deberá presentar, por escrito, la solicitud correspondiente en la oficina de Arrigorriagako Udal Euskaltegia, situada en Urgoiti pasealekua 55, 2º piso de Arrigorriaga, donde será registrada. En la misma deberán constar, como mínimo, los siguientes datos:

- Nombre, apellidos y número de DNI de la persona reclamante y dirección a efectos de notificaciones.
- El nivel de acreditación al que se ha presentado, así como el motivo de la reclamación. La mera discrepancia no constituirá base suficiente para solicitar la revisión de la calificación obtenida, por lo que las solicitudes de revisión de la calificación deberán tener una argumentación técnica que las sostenga..
- Lugar, fecha y firma de la persona reclamante.

Errreklamazioak aurkezteko epeak honako hauek izango dira:

- 2024ko uztailaren 9tik 10era: 3. ebaluazio-garaiari dagozkion erreklamazioak.
- 2024ko urriaren 8tik 10era: 4. ebaluazio-garaiari dagozkion erreklamazioak.

Erreklamazio guztiak Arrigorriagako Udal Euskaltegiaren zuzendari akademikoak ebatziko ditu, eta hurrengo datetan, beranduenez, jakinaraziko ditu:

- 2024-07-18: 3. ebaluazio-garaiari dagozkion erreklamazioak.
- 2024-10-17: 4. ebaluazio-garaiari dagozkion erreklamazioak.

Aurrekoaz gain, Arrigorriagako Udal Euskaltegiaren aurrean egindako erreklamazioaren erantzunarekin ados ez badaude, Azterketa Batzordearen aurrean erreklamazioa aurkezteko eskubidea izango dute ikasleek, errreklamazioa dagokion garai bakoitzeko agirien eragin-dataren ondorengo bost lanegunetan. Hona hemen erreklamazio hori aurkezteko epeak:

- 2024ko uztailaren 24tik 29ra: 3. ebaluazio-garaiari dagozkion erreklamazioak.
- 2024ko urriaren 23tik 25era: 4. ebaluazio-garaiari dagozkion erreklamazioak.

Horiez gain, HABEren zuzendariaren aurrean erreklamazio horren erantzunaren

Las fechas para presentar las reclamaciones son las siguientes:

- Del 9 al 10 de julio de 2024: reclamaciones relacionadas con el 3° periodo de evaluación.
- Del 8 al 10 de octubre de 2024: reclamaciones relacionadas con el 4° periodo de evaluación.

Todas las reclamaciones serán resueltas por la dirección académica del organismo autónomo Arrigorriagako Udal Euskaltegia, y se notificarán, como máximo, en las siguientes fechas:

- 18-07-2024: reclamaciones relacionadas con el 3° periodo de evaluación.
- 17-10-2024: reclamaciones relacionadas con el 4° periodo de evaluación.

Así mismo, en caso de no conformidad con la respuesta a la reclamación realizada en Arrigorriagako Udal Euskaltegia, el examinando tendrá derecho a presentar reclamación ante la Comisión de Exámenes en el plazo de los siguientes cinco días hábiles a la fecha de efectividad de los certificados obtenidos en cada uno de los períodos de evaluación y que son los siguientes:

- Del 24 al 29 de julio de 2024: reclamaciones relacionadas con el 3° periodo de evaluación.
- Del 23 al 25 de octubre de 2024: reclamaciones relacionadas con el 4° periodo de evaluación.

Además, se podrá presentar recurso de alzada ante el Director de HABE con motivo de la respuesta recibida a la reclamación.



Urgoiti pasealekua 55, 2.a • 48480 Arrigorriaga • Tel. 944002060 • www.arrigorriagakoeuskaltegia.eus

aurka gora jotzeko errrekurtsoa jarri ahal izango da.

8. oinarria.– Datu pertsonalen babesa

Irakasle, tutore, zuzendari eta teknikarien betebeharra da isilpean gordetzea, egiaztatzegintzari lotutako ezein eragileri buruz, beren egitekoen jardunean ezagutzen dituzten datu pertsonalak eta bestelako informazioa.

Horregatik, urtero izendatutako epaimahaikideek dagokion konfidentzialtasun-hitzarmena sinatu beharko dute.

**Bigarrena:** Hurrengo Artezkaritza Batzordean Ebazpen honen berri eman.

Base 8ª.– Protección de datos personales.

Es deber del profesorado, de los tutores y tutoras, de la dirección y del personal técnico, mantener la confidencialidad de los datos personales y demás información relacionada con las partes intervinientes en el proceso de acreditación a los que tengan acceso en el desarrollo de sus funciones.

Por ello, el personal que forme parte de los tribunales calificadores nombrados, firmará el acuerdo de confidencialidad pertinente.

**Segundo:** Dar cuenta de esta resolución en la próxima reunión del Consejo Rector.

## 4.- 2023. EKITALDIARI DAGOKION AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN BERRI EMATEA.

Arrigorriagako Udal Euskaltegiaren Artezkaritza Batzordeak 2023ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioaren onarpenari dagokion presidente delegatuaren ebazpenaren berri izan du. Ebazpenak honakoa dio:

## 4.- DAR CUENTA DE LA LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DEL EJERCICIO 2023.

El Consejo Rector de Arrigorriagako Udal Euskaltegia se da por enterado de la Resolución de la Presidenta delegada referente a la aprobación de la liquidación del Presupuesto de 2023, y cuyo tenor literal es el siguiente:

## PRESIDENTE DELEGATUAREN EBAZPENA

## GAIA: 2023. URTEARI DAGOKION AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Kontu-hartzaile delegatuak emandako Arrigorriagako Udal Euskaltegia erakunde autonomoaren 2023ko aurrekontuaren likidazioa ikusita, eta berau osatzen duten agiriak aztertuta, eta horiek ontzat emanez, Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren

## RESOLUCIÓN DEL PRESIDENTE DELEGADO

## ASUNTO: LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO CORRESPONDIENTE AL EJERCICIO 2023

Vista la liquidación del presupuesto del organismo autónomo Arrigorriagako Udal Euskaltegia correspondiente al ejercicio 2023 formulada por la interventora delegada, así como los documentos que integran la misma, y encontrándola conforme, en el ejercicio de las



Urgoiti pasealekua 55, 2.a • 48480 Arrigorriaga • Tel. 944002060 • www.arrigorriagakoeuskaltegia.eus

49.3 artikuluak ematen dizkidan eskumenak betez.

competencias que me atribuye el artículo 49.3 de la Norma Foral 10/2003, de 2 de diciembre, presupuestaria de las Entidades Locales.

## HONAKOA EBATZI DUT:

**Lehenengoa:** Arrigorriagako Udal Euskaltegia erakunde autonomoaren 2023ko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Modu honetan dago laburbilduta:

## RESUELVO:

**Primero:** Aprobar la liquidación del presupuesto del organismo autónomo Arrigorriagako Udal Euskaltegia correspondiente al ejercicio 2023, y que presenta el siguiente resumen:

| **AURREKONTUAREN EMAITZA / RESULTADO PRESUPUESTARIO** | | |
|---|---|---|
| Indarrean dagoen Aurrekontuko aurrekontu-eragiketen emaitza:<br>Resultado de las operaciones presupuestarias del presupuesto vigente: | | 35.395,47 |
| • Onartutako eskubideak / Derechos reconocidos:<br>• Onartutako betebeharrak / Obligaciones reconocidas: | 415.475,22<br>380.079,75 | |
| Aurreko ekitaldietako aurrekontu likidatuengatiko eragiketen emaitza:<br>Resultado por operaciones de presupuestos liquidados de ejercicios anteriores: | | 0 |
| • Onartutako eskubideak / Derechos reconocidos:<br>• Onartutako betebeharrak / Obligaciones reconocidas: | 0<br>0 | |
| AURREKONTUAREN EMAITZA (doikuntzen aurretik)<br>RESULTADO PRESUPUESTARIO (antes de ajustes) | | 35.395,47 |
| Aurrekontuaren Emaitzen doikuntzak:<br>Ajustes al resultado presupuestario: | | 0 |
| • + Diruzaintzako sob erakinekin finantzatutako obligazioak / Obligaciones financiadas con remanente de tesorería:<br>• - Ekitaldiari egotz dakizkiokeen finantzaiazio-desbideraketa positiboak / Desviaciones positivas de financiación imputables al ejercicio.<br>• + Ekitaldiari egotz dakizkiokeen finatziario-desbideraketa negatiboak / Desviaciones negativas de financiación imputables al ejercicio. | 0<br>0 | |
| **AURREKONTUAREN EMAITZA DOITUA**<br>**RESULTADO PRESUPUESTARIO AJUSTADO** | | **35.395,47** |



Urgoiti pasealekua 55, 2.a • 48480 Arrigorriaga • Tel. 944002060 • www.arrigorriagakoeuskaltegia.eus

| DIRUZAINTZAKO SOBERAKINA / REMANENTE DE TESORERÍA | | |
|---|---|---|
| DIRUZAINTZAKO FONDO LIKIDOAK:<br><br>FONDOS LÍQUIDOS DE TESORERIA | | 67.956,35 |
| KOBRATZEKE DAUDEN SALDOAK:<br><br>SALDOS PENDIENTES DE COBRO: | | +30.356,91 |
| • Diru-sarreren aurrekontuko zordunak: indarrean dagoen ekitaldia / Deudores del presupuesto de ingresos: ejercicio corriente:<br>• Diru-sarreren aurrekontuko zordunak: itxitako ekitaldiak / Deudores del presupuesto de ingresos: ejercicios cerrados<br>• Aurrekontukoak ez diren zordunak / Deudores no presupuestarios:<br>• - Aplikatze dauden kobrantzak / Cobros pendientes de aplicación: | 30.356,91<br><br>0<br><br>0<br><br>0 | |
| ORDAINTZEKE DAUDEN SALDOAK:<br><br>SALDOS PENDIENTES DE PAGO: | | -24.083,35 |
| • Gastuen aurrekontuko hartzekodunak: indarrean dagoen ekitaldia / Acreedores del presupuesto de gastos: ejercicio corriente:<br>• Gastuen aurrekontuko hartzekodunak: itxitako ekitaldiak Acreedores del presupuesto de gastos: ejercicios cerrados<br>• Aurrekontukoak ez diren hartzekodunak / Acreedores no presupuestarios:<br>• - Aplikatze dauden ordainketak / Pagos pendientes de aplicación: | 5.568,72<br><br>0<br><br>18.514,63<br><br>0 | |
| DIRUZAINTZAKO SOBERAKIN GORDINA:<br><br>REMANENTE DE TESORERÍA BRUTO: | | 74.229,91 |
| KOBRATZEKO ZALANTZASKOAK DIREN SALDOAK:<br><br>SALDOS DE DUDOSO COBRO: | | 0 |
| DIRUZAINTZAKO SOBERAKIN LIKIDOA:<br><br>REMANENTE DE TESORERÍA LÍQUIDO: | | 0 |
| DIRUZAINTZAKO SOBERAKINAK, ERAGINDAKO FINANTZAZIOA DUTEN GASTUETARAKO:<br><br>REMANENTE DE TESORERÍA PARA GASTOS CON FINANCIACIÓN AFECTADA: | | 0 |
| DIRUZAINTZAKO SOBERAKINA GASTU OROKORRETARAKO:<br><br>REMANENTE DE TESORERÍA PARA GASTOS GENERALES: | | **74.229,91** |



Urgoiti pasealekua 55, 2.a • 48480 Arrigorriaga • Tel. 944002060 • www.arrigorriagakoeuskaltegia.eus

**Bigarrena:** Erabaki honen berri ematea Artezkaritza Batzordearen hurrengo bileran.

**Hirugarrena:** Adostutakoa Arrigorriagako Udalari jakinaraztea, dagozkion ondorioetarako.

**Segundo:** Dar cuenta de la presente resolución en la próxima reunión del Consejo Rector.

**Tercero:** Trasladar lo anteriormente acordado al Ayuntamiento de Arrigorriaga para los efectos oportunos.

**5.- 2024-02-23KO ETA 2024-03-18KO EBAZPENEN BIDEZ ONARTUTAKO FAKTUREN BERRI EMATEA.**

Artezkaritza Batzordea presidente delegatuak fakturak onartzeko 2024-02-23ko eta 2024-03-18ko ebazpenen jakinaren gainean geratu da, zenbatekoak 1.824,52 eta 1.937,71 eurokoak dira, hurren ez hurrren.

**5.- DAR CUENTA DE LAS FACTURAS APROBADAS POR RESOLUCIONES DE FECHA 23-02-2024 Y 18-03-2024.**

El Consejo Rector se da por enterado de las resoluciones del presidente delegado para aprobar facturas correspondientes al 23-02-2024 y al 18-03-2024, y cuyos importes asciendan a 1.824,52€ y 1.937,71€ respectivamente.

**6.- FAKTUREN ZERRENDAREN ONARPENA, BIDEZKOA BADA.**

Ez dago zerrendarik.

**6.- APROBACIÓN, SI PROCEDE, DE LA RELACIÓN DE FACTURAS.**

No se presenta ningúna relación.

**7.- NORBERAK LEKARKEENA.**

Ez da ezer aipatzen.

**7.- RUEGOS Y PREGUNTAS.**

No se presenta ningún punto.

Horrela bada, bilera amaitutzat jo da eta guztiaren akta jaso da.

Se da por finalizada la reunión, extendiéndose la presente acta.

Arrigorriagan, 2024ko apirilaren 17an

PRESIDENTE DELEGATUA

Arrigorriaga UDAL EUSKALTEGIA

IDAZKARI DELEGATUA



Urgoiti pasealekua 55, 2.a • 48480 Arrigorriaga • Tel. 944002060 • www.arrigorriagakoeuskaltegia.eus